

Zamudio, 2009ko uztailak 12

Lagun agurgarria,

Azaroan Europar Batasun osoan Kalitatearen Europar Astea ospatzen da urtero, kalitatearen hedapen eta sustapen ekitaldiak batzen dituen topagunea izanik Europa osoan zehar.

Zentzu honetan, EUSKALITek, urtero lez, gertaera hau koordinatzen du Euskadin. Joan den urtean 55 ekitaldi antolatu ziren 63 antolatzailearen esku. Aurten, Astearen XVI. edizioa gure erkidegoan **azaroaren 8 eta 19 bitartean** ospatuko da, **“Kalitatearekin hasiz, Berrikuntzarekin jarraituz, Bikaintasuna lortuko dugu” lelopean.**

EUSKALITek koordinazio lan bera egiten jarraituko du, hala nola, promozio ekintzak, zein antolatzaileei material ezberdinak emanez: ekitaldien agenda duen liburuxka, kartelak, asetahun inkestak, Bikaintasun eta Berrikuntzari buruzko heziketa-dokumentuak, hizlarietarako emateko opariak, baita EUSKALITeko web-gunean Asteko informazio osora sarrera egongo da ere. Urtero lez antolatzaileek EUSKALITeko aholkularitza eta orientazioarekin kontu dezakezue, ekitaldien gaia, hizlarien hautaketa, etabarretan laguntzeko.

EUSKALITen bere inguruan sentikortzaile edo mobilizatzaile efektua duten erakundeak lehenetsuta dutela kontutan hartzen jarraituko du. EUSKALITek ipintzen duen baldintza bakarra, Astearen kokatzen diren ekitaldien antolatzaileak irabaz asmorik gabeko erakundeak izatea da (hots, elkarte, fundazio, lanbide elkargo, herri administrazioa, klusterrak eta antzeko erakundeak). Gure asmoa **Kalitate, Berrikuntza, Bikaintasuna, EGEa, Iraunkortasuna eta Lehiakortasunarekiko** sentsibilizazio eta arreta dei bat suposatzen duten hitzaldiak eta edukiak aurkeztea da, lan-talde ezberdinei zuzenduta: enpresa, hezkuntza zentro, elkarte, osasun zentro, herri administrazio, bestelako erakundeak, etab.

Joan den urtean 55 ekitaldi burutu ziren 63 antolatzailearen esku. **Kalitate eta Bikaintasunaren Europar Aste** honetan zure lankidetzat izan nahi dugu, horretarako **EKINTZAREN BAT ANTOLATZERA GONBIDATZEN ZAITUGU**, hizlari bat edo batzuk dituen hitzaldi batekin, mahai inguru edo eztabaida batekin, ate irekien jardunaldi, mintegi, gure inguruko edo kanpoko esperientzien aurkezpenekin, adibidez.

Oso garrantzitsua da edukien zein ekitaldien agenda ezberdinak egitura egokia izatea. Hori dela eta, ekitaldiren baten lagundu nahi baduzu, **DERRIGORREZKOA da hurrengo jarraibideak betetzea:**

1.- UZTAILAREN 30 BAINO LEHEN: ASTEAREN ANTOLATZAILE GISA PARTE HARTZEKO INTERESA BADUZU IZENA EMAN

Horretarako, web helbide bat martxan jarri dugu [Castellano Euskera](#) (Saguarekin aukeraturiko hizkuntzaren gainean jarri).

Inskripzio horrekin antolatzaile bakoitzak sartzeko pasa-hitza aukeratzen du, ondoren beharrezkoa izango zaizuna ekitaldien xehetasunak sartzeko. Halaber, zure erakundeak azpimarraturiko baldintzak betetzeko konpromisoa hartzen du, arretaz irakur itzazu arren.

2.- IRAILAREN 16a BAINO LEHEN: ZURE ERAKUNDEAK ANTOLATUKO DITUEN EKITALDIEN ETA EDUKIEN INSKRIPZIOA burutu, erraztuko dugun web helbidearen bitartez www.euskalit.net/semana. Ekitaldien inskripziara sartzeko, lehenengo puntuan azaldu bezala, antolatzaile gisa izena ematea beharrezkoa da.

Ekitaldien egutegi orekatu bat eskaintzeko helburuarekin, inskripzioan egun bakoitzeko ekitaldien kopurua mugatuko da, hau da, egun zehatz bat behin betetzen denean ezinezkoa izango da beste ekitaldi bat sartzea. Gauzak horrela, **epeen betekuntzarekin zorrotza izan zaitetz mesedez**, gainerako lankideen lana eta antolaketaren fase guztiak errespeta ditzagun, Astearen antolaketa pertsona eta erakunde askoren ahalegin garrantzitsua suposatzen du eta.

Irailaren 20tik aurrera egin duzun proposamenaren adostasuna jakinaraziko dizugu, iradokizunak, itxaron-zerrenda eta beharrezkoa izanez gero, ekitaldien data edo ospatze lekuen aldaketak, eskatuz, beste antolatzaile batzuekin gainjarritasunak saihesteko.

Behin zure partaidetza baieztatu ondoren promozio materialekin harremanduriko gaiak zehaztuko ditugu.

Orobat, aurretiaz aipaturiko elementuez gain (EUSKALITek finantzaturikoak), Astea sustatzeko nahi dituzun beste elementu erabiltzera animatzen zaitugu.

Informazio gehiago nahi izanez gero, nirekin harremanetan jar zaitetzke hurrengo telefonoan 94 404.73.83 edo nobieta@euskalit.net bidez.

Zure lankidetzaren zain, agur bero bat jaso ezazu,

Nerea Obieta

A handwritten signature in black ink that reads "Nerea Obieta". The signature is written in a cursive style and is enclosed within a simple, hand-drawn oval shape.

EUSKALIT